



**Historia eta fikzioa:
Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX mendeetan (2001)
eta
Ikerketa berriak Euskal Herriko historian:
metodologia aitzindariak eta berrikuntza historiografikoak (2002)**

Liburu aurkezpen ekitaldian Iban Zalduak egindako oharrak
(Gasteiz, 2002.XI.20)



1. Kondairako erredakzio kontseiluaren sarrera

Liburu aipamenak beti izaten dira inkomodoak: bigunegiak direlako batzutan, kritikoegiak bestetan, axalegiak sarri, lan nekagarri eta esker gaiztokoa edonoiz. Inor mindu nahi ez izateak edota iruzkina ondo baino hobeto egin gurak ere (liburu aipamena testua ahitu behar duen ebazpen definitiboa izan beharko balitz bezala) jende asko desanimatzen du gisa honetako idazkiak egitetik. Eta hola, maiz, liburu baten inguruan sortutako gogoeta interesgarriak adiskideen arteko konfidentzia soilean geratzen dira, historialarien komunitate orokorarentzat ezezagun. Egoera hau gogotan *Kondaira* aldizkariko erredakzioak —hurrengo zenbakietarako jasotzea espero dituen liburu aipamenen zain— aurreneko ale honetarako liburu aipamen ezohikoa prestatu du.

Duela hilabete batzuk, 2002ko azaroaren 20an, UEUK bi historia liburu aurkeztu zituen Gasteizen EHUKo historia fakultatean: *Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX mendeetan* (hainbat egile, K. Artetxe arg., 2001, UEU, Bilbo) eta *Ikerketa berriak Euskal Herriko historian: metodologia aitzindariak eta berrikuntza historiografikoak* (hainbat egile, J. Kintana – K. Artetxe arg., 2002, UEU, Bilbo). Aurkezpen ekitaldian Iban Zaldua historialari eta idazleak ohar jakingarriak egin zituen liburu horien inguruan. Dudarik gabe liburu aurkezpen batek

formazko hainbat baldintzapen ezartzen ditu, eta Zaldua irakasleak liburu aipamena bertan egin ordez idatziz eta aldizkari batera bidaltzeko xedez egin izan balu beste era batetara taiutuko zukeen (era osoago eta zorrotzagoan ziurrenik). Hala ere, *Kondaira* zuzentzen duten UEUko Historia Saileko kideen iritziz ekitaldi hartan esandakoak bere hartan publikatzeko modukoak dira, bereziki ondo egokitzen baitira *Kondaira* aldizkariak plazaratu nahi dituen zenbait auzitara: historiaren egungo estatus labainkorra zientzien artean, Euskal Herriko historiografiaren egoera, euskaraz historia lantzearen erronkak, etab. Izatez, urte batzuk lehenago, Iban Zaldua (Pruden Gartziarekin batera) antzeko auziez arduratu zen beste liburu batean (*Historia: zientzia ala literatura?*, UEU, Bilbo, 1995); eta horrek eta bere euskal idazle/historialari kondizio bikoitzak, abiapuntu aparta eskaintzen zion gai hauetaz aritzeko. Hala bada, ekitaldi hartan Zalduari jaso zitzaizkion hitzak eman bezala argitaratzen dira, ondoren liburuen edukari buruzko eranskin batekin osatuz.

2. Iban Zalduaren oharra liburu aurkezpenean

Zalduak, “historialarien lanaren emaitzarik behinenetakoa liburuak eta artikulua argitaratzea” dela oroitzuz, Karlomagnoen eta ikerketa berrien inguruko bi liburu hauek publikatu direlako poza agertu zuen, “gure jarduerak helbururik badu, gauzak idatziz uztea delako”. Era horretara, aurkezpen ekitaldira gonbidatzeagatik eskerrak emanda, liburuen analisiari ekin zion:

Ikerkuntzen sintesia

“Liburu hauek, berez, ez dira nagusiki ikerkuntzakoak, ikerkuntzaz ulertzen dugunekoak, behintzat; bestalde, ez dira, ezta ere, eta bistan da, dibulgazioko liburuak. Sintesi lanak dira. Kuestioaren egoera plazaratzen duten bi liburu dira: bata, gai bakar eta konkretu baten inguruan (Karlomagnoen garaia Euskal Herrian), eta bestea gai zabal baten inguruan (euskal historialaritzaren egoera gaur egun, beronen adar edo gai batzuei dagokionean).

“Ez dira artxiobotan edo indusketetan zuzenean mamitutako testuak, baizik eta oinarrizko ikerketen azterketaren gainean eraikitakoak. Jakina, liburu hauek osatzen dituzten artikuluen artean badaude egileek eurek egindako ikerketa zuzenetik ateratako ondorioak, baina testuetan nagusi da sintesi bat lortzeko nahia: gaiak erabat agortzea dute helburu, gaiaren egungo egoera laburbiltzea; adibidez, zein da gaur eguneko hiri-arkeologiaren egoera Euskal Herrian, edo Karlomagnoen garaiko gizartearen funtzionamenduaz irudi laburtu bat ematea, ahalik eta eguneratuena.

“Nik ez dut uste lan mota hau, sintesi lana, meziprezia daitekeenik, ikertzaile batzuek egin izan duten bezala. Zalantzarik gabe, ikerkuntza zuzena funtsezkoa da, hori gabe ez dagoelako historiarik, baina sintesi lanen garrantzia ez da txikiagoa. Kapitalismoaren funtzionamenduaren ezagule onenetariko den Bob Sutcliffe ekonomialariari entzun nion behin berarentzat ez dagoela ikerketa mota bakarra, bi baizik: lehen mailakoa, hots, ikerketa bezala ezagutzen dugun hori (iturri zuzenekin egiten dena hain zuzen ere), eta bigarren mailako ikerketa, hau da, lehen mailako ikerketak hartu eta interpretatzen, ordenatzen diguna. Eta, gehitzen zuen, bigarren mailako ikerketa hori lehen mailakoa bezain premiazkoa dela. Ludger Meesek eta Joseba Agirreazkuenagak defenditzen dute, *Ikerketa Berrien* liburuan hain zuzen

ere, mota honetako sintesi-lanen beharra euskal historiografiaren garapenerako. Ba, alde horretatik, bi liburu hauek bigarren mailako ikerketa mota horren adibide bikainak iruditzen zaizkit.”

Historia euskaraz idazteaz

“Ildo horretan pozgarria da, jakina, liburu hauek euskaraz eman direlako. Ez dut esan nahi hori meritua denik, berez: ez nuke halako ezer esango kalitatezko lanak direla jakingo ez banu. Baina, gauzak, arlo honetan gu ikasten hasi ginenean baino hobeto dauden arren, oraindik ez da ohikoa maila honetako lanak euskaraz argitaratzea: *Uztaro* aldizkarian, ziur egon zaitezketek, ez dugu izaten soberako artikulu-eskaintzarik.

“Normala da, karrera akademikoaren indarrak halabeharrez bultzatzen gaituelako, etengabe, lanak gaztelaniaz edo frantsesez argitaratzea (gutxiago ingelesez, kurioski, nazioarteko zientziaren hizkuntza hori baita). Zer esango dizuet: euskarazko artikuluak eta liburuak, oraindik, irakaskuntza eta ikerkuntza prozesuaren *hondakinak* dira, hein handi batean.

“Baina halako materialen premia handia dugu, historialari baten eraikuntza-prozesuan: historialari bihurtzeko hain zuzen ere, oso inportantea delako irakurtzea, horrek eskaintzen baitigu, behar dugun informazioa ez ezik, baita aritzeko modu bat, idazteko eta ideiak antolatzekeo ereduak, eta hori guztia erdaraz egitea, etengabe, traba bat delako norberarena izango litzatekeen euskarazko historialari-diskurtso bat garatzeko orduan. Hau da, (historiari buruz) idazten, bide normala jarraituz, irakurtzean ikasi beharko genuke, baina aukerek urriak izaten jarraitzen dutenez, halabeharrez idaztean ikasten dugu euskaraz idazten (eta, ondorioz, idazten ikasten jarraitzen dugu, beti ere). Eta hori ez da, askotan, oso komenigarria, testuaren kaltean doalako, batez ere idazten diren lehenengo testuen kaltean (eta hemen lotsagorritu beharko nintzateke, euskaraz idatzi nituen nire lehenengo artikuluak gogoratzean, baina tira...). Beraz, halako liburuak, eta ez bairik gabe, laguntza handia ematen digute alde horretatik, eta, bestalde, belaunaldi berriaren joera geroz eta handiagoaren nolabaiteko lekuko ere badira, zeren eta, egileen artean, badago jadanik argitalpen gehienak euskaraz egin duenik.”

Zientzia eta fikzio artean

“Esan daiteke *Ikerketa Berrien* liburuak askotariko edo koktel itxura duela (ikuspegiak, metodologiak, talaiak...), eta hori gaur egungo historialaritzatik, puskatuaren ispilu da, hein batean. Etengabeko progresuan eta aurrerabidean sinesten zuen historiografia horren krisiaren pusketak dira. Baina, bestalde, artikulu gehienetan dago historiaren aldarrikapen argi bat zientzia, bezala, hots, egia bilatzen duen ezagutza-era edo diziplina bezala. Horrela, liburu hauetan ere jasotzen da, nire ustez, euskal historialariena den oso aspaldiko kezka: fikzioaren eta errealitate historikoaren arteko dialektika edo harremanena; oso argiki Karlomagnoaren aldiari buruzko liburuan, eta nahikoa ere bigarren liburuko artikulu batzuetan (adibidez, nabarmen J. Agirreazkuenagarenean, baina baita Alberto Angulorenean ere). Agian historialaritzatik ez da horren ziurra, ez de egia osoa, baina bada nolabaiteko egia bat. Egia bitartez (ebidentzien bidez) eraikitzen den egia.

“Eta fikzioari dagokionean, bada kezkatzen nauen gai bat: nobela historikoaren gorakada eta historialarien bazterketa. Zentzu horretan historialariok Toti Martínez de Lezearen edo Ken Folllten aurkako bataila galdu dugula esan daiteke.

“Auzia, nire ustez, insolublea da. Hala ere, historiak zientzia bezala duen maila kontserbatu nahi badu, mistifikazioan erori nahi ez bada, halako lanak egiten jarraitu beharko dira (liburu hauek bezalakoak, alegia). Beraz, agian atentzioa jarri beharko dugu eskaileraren hurrengo mailan, dibulgazioan: dibulgazioko kalitatezko obra duinen eta zehatzen ekoizpenean egon beharko luke.”

Artikulu gustukoenak

Iban Zalduak, amaitzeko, bere iritziz nabarmenenak ziren artikuluak aipatu zituen (“aurkezpen bat denez, ez ditut gustatu ez zaizkidanak aipatuko” erantsiz).

Hola Karlomagnoaren liburutik, Jaione Agirreraren artikulua aipatu zuen “sintesi ona” egiten delako bertan. Bestalde, Jose Angel Lemak Iruñeko erresumaren sorreraz idatzitakoari “status questionis argia” iritzi zion. Eta azkenik Anjel Lertxundik historia eta literaturaz idatzitako saioa ere guztiz azpimarragarri ikusi zuen.

Ikerketa berrien liburuan, “arkeologiari diodan mania gora-behera”, hasteko, Joxean Mujikaren gai honen inguruko artikulua nabarmendu zuen. J. A. Lemaren bigarren artikulua berrirori ere aipatzeko modukoa ikusi zuen, “beste status questionis magistral bat delako”. Segidan Xabier Alberdik *Conversen* inguruan idatzitakoa “ikerketa konkretu bat nola egiten den ikusteko adibide on” gisa deskribatu zuen. Eta amiatzeko J. Agirreazkuenagaren testua “duen ikusmira zabalagatik” eta L. Mees-ena “exhaustibotasunagatik” aipatu zituen.

3. Eranskina: liburuen aurkibideak

Artetxe, K. (arg.): *Historia eta fikzioa: Karlomagno Euskal Herrian VIII-IX. Mendeetan*, UEU, Bilbo, 2001, 154 orr.

“Sarrera”, Karmele Artetxe.

“Gizartea eta ideologia Karlomagnoaren garaian (VIII-IX. Mendeak)”, Jaione Agirre.

“Iruñeko erresumaren sorrera (VIII. mendetik X. mendera arte): interpretazioaren bila”, Jose Angel Lema.

“Goi Erdi Aroko arkeologiaren ikuspegi orokorra: Hego Euskal Herriaren kasua”, Irati Iciar eta Karmele Artetxe.

“Antzinaro Berantiarreko nekropoliak Euskal Herrian. Frankoen eragina”, Belen Bengoetxea.

“Lehen euskal hagiografia kondaira eta historiaren artean”, Roldan Jimeno.

“Historia eta literatura: zurubi luzean gora eta behera”, Anjel Lertxundi.

Kintana, J. eta Artetxe, K. (arg.): *Ikerketa berriak Euskal Herriko historian: metodologia aitzindariak eta berrikuntza historiografikoak*, UEU, Bilbo, 2002, 234 orr.

“Sarrera”, Jurgi Kintana eta Karmele Artetxe

Arkeologia

“Megalitismoren inguruko hausnarketak: eraikuntza, erabilera eta erritualak”, Jose Antonio Mujika.

“Paleopatologia: gure arbasoen gaixotasunak”, Lourdes Herrasti.

“Hiri-arkelogia Euskal Herrian. Definizio, eztabaida eta problematikak”, Belen Bengoetxea.

Erdi Aroa

“Euskal medievalismoaren zenbait alderdi: lorpenak eta hutsuneak”, Jose Angel Lema

“Emakumea XVI. mendeko gipuzkoar leinuen gobernuan: ikerketarako abiapuntuak”, Oihane Oliveri.

Aro Berria

“Biografia. Metodo zahar baten berragerpena eta ikerketa berriekin dituen harremanak”, Alberto Angulo.

“Giza bazterketa Euskal Herrian XVI eta XIX. mendeen bitartean. Ikerketen berri”, David Zapirain.

“Conversa izenekoak eta Lapurdiren eta Gipuzkoaren arteko harreman komertzialak Aro Berrian”, Xabier Alberdi.

Aro Garaikidea

“Historian barrena: historiografiaren arazoak”, Joseba Agirreazkuenaga.

“Euskal abertzaletasunaren historiografia”, Ludger Mees.

“Hezkuntzaren historia Euskal Herrian: hurbilpen historiografikoa”, Iñaki Zabaleta, Idoia Fernandez, Arantza Uribe-Etxebarria eta Pauli Davila.

“Berrezarkuntza garaiko (1876-1923) historiografia Hego Euskal Herrian. 1988-1998 bitarteko produkzioaren azterketa bibliometrikoa eta kaulitatiboa (gizartea eta politika)”, Mikel Aizpuru.